ERAKUNDEA	Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea (UKZM)
SAILA	Euskara
ESPEDIENTE MOTA	Administrazio-kontratazioa
KONTRATU MOTA	Zerbitzuak
XEDEA	**Euskara-indartzeko saioak emateko zerbitzua**
ESLEIPEN PROZEDURA	Irekia
EXPEDIENTE ZENBAKIA	2025-01007
DOKUMENTU MOTA	**PLEGU TEKNIKOEN AGIRIA**

EDUKIA

1. ZERBITZUAREN XEDEA ETA HELBURUAK....2
2. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA....2
3. ZERBITZUA EMATEKO LEKUAK ETA KILOMETRAJEA....4
4. FUNTZIONAMENDUA....4
5. METODOLOGIA ETA PROGRAMA....5
6. GIZA BALIABIDEAK....6
7. EGINKIZUNAK....8
8. BALIABIDE MATERIALAK....9
9. DATU PERTSONALEN BABESA....10

Kontratatu nahi den zerbitzuaren helburu orokorra da, Uribe Kostako ikastetxeetako 6-12 urte arteko umeen artean euskara indartzeko laguntza eskaintzea, eta hala, azken urteetan udalek hasitako bideari jarraipena ematea. Horretarako, EUSKARA INDARTZEKO SAIOAK programa esleitu nahi da.

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed83466-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

1. ZERBITZUAREN XEDEA ETA HELBURUAK

Kontratu honen bidez laguntza eskainiko zaie 2025/2026 eta 2026/2027 ikasturteetan euskaraz mintzatzeko eta ulertzeko zailtasunak dituzten 6-12 urte bitarteko ikasleei, helburu hartuta euskaraz aritzeko zailtasunak murriztea eta euskaraz idazteko eta mintzatzeko gaitasuna indartzea.

Helburu zehatz hauek ere badira:

- ✓ Ikasleekin euskara modu arin eta gozagarrian lantzea.
- ✓ Euskararen motibazioa, ezagutza eta erabilera sustatzea.
- ✓ Euskal mundua, euskal kultura eta euskarak eskaintzen dituen baliabideak ezagutaraztea.
- ✓ Euskara landuz gozatzea.
- ✓ Genero-berdintasuna sustatzea euskara eta euskal kulturaren bitartez.

2. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Ekintza honen egutegia ikastetxeetako egutegi ofizialaren araberakoa izango da, beraz, jaiegunetan eta oporretan ez da zerbitzua eskainiko.

Hala ere, euskara indartzeko saioen hasiera eta amaiera ez dira bat etorriko eskola-egutegiarekin. Saioak, urriaren 1ean hasiko dira. Amaiera, aldiz, ikasturte bakoitzeko maiatzaren 31n suertatuko da.

Euskara indartzeko saioen ordutegiak jarraian adierazitakoak izango dira. Hala ere, ikasturtea hasi ondoren ikastetxeek aldaketaren bat egiteko aukera izango dute, betiere ordu kopurua mantenduz.

Zipiriñe (Sopela)

Maila	Ordutegia	Talde kopurua
LH 3-4-5-6	asteartea eta osteguna 12:50 – 13:50	2 talde
LH 1-2	asteartea eta osteguna 13:50 – 14:50	Talde 1

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed8346d-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Ander Deuna (Sopela)

Maila	Ordutegia	Talde kopurua
LH 4-5-6	astelehena, asteazkena eta ostirala 12:30 – 13:10	Talde 1
LH 1-2-3	astelehena, asteazkena eta ostirala 13:10 – 13:50	Talde 1

Gorlizko Ikastetxea

Maila	Ordutegia	Talde kopurua
Zehazteke	astelehena eta osteguna 16:00 – 16:40	Talde 1
Zehazteke	astelehena eta osteguna 16:40 – 17:20	Talde 1

Elortza Eskola (Urduliz)

Maila	Ordutegia	Talde kopurua
LH 4-5-6	asteartea eta osteguna → 16:00 – 17:00	Talde 1
LH 1-2-3	asteartea eta osteguna → 16:00 – 17:00	Talde 1

Plentziako Eskola

Maila	Ordutegia	Talde kopurua
Zehazteke	Zehazteke	2 talde

Lemoizko Eskola

Maila	Ordutegia	Talde kopurua
LH 4-5-6	Astelehena eta asteazkena 16:30 – 17:30	Talde 1

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed8346d-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

LH 1-2-3	Astelehena eta asteazkena 16:30 – 17:30	Talde 1

Gorlizko Udalak EUSKARA INDARTZEKO SAIOAK programaren zerbitzua esleituta du 2025-26 ikasturteetarako. Hori horrela, 2025-2026 ikasturtean 11 talde arituko dira.

3. ZERBITZUA EMATEKO LEKUAK ETA KILOMETRAJEA

Enpresa esleipendunak ikastetxeek utzitako lokaletan emango du zerbitzua eta horrek ez dio enpresari inolako gasturik ekarriko .

Bestalde, ikasturtean zehar egiten diren bilerak Mankomunitateko bulegoetan edo adosten den lokalean egingo dira.

Enpresa esleipendunaren kontura joango da zerbitzua emateko egin behar diren joan-etorrien kostua.

4. FUNTZIONAMENDUA

Euskara indartzeko saioetan parte hartzeko plaza-kopurua mugatua eta itxia izango da, beraz, posible da saio hauetan interesa duten ikasle guztiek ezin izatea parte hartu. Ikastetxe guztietako 6-12 urteko adin-tarteari dagozkien mailetako tutoreek euskara indartzeko saio hauen beharra duten ikasleen zerrenda osatuko dute eta zerrenda horretan dauden ikasleek baino ezin izango dute parte hartu.

Zerrenda horretan oinarritutako taldeetan banatuko dira ikasleak, beti ere, adinaren arabera. Talde bakoitzean, gehienez, 15 ikasle egongo dira. Honako talde-kopuru hauek aurreikusten dira:

- Ander Deuna Ikastolan: 2 talde (30 ikasle)
- Zipiriñe ikastetxean: 3 talde (45 ikasle)
- Gorlizko ikastetxean: 2 talde (30 ikasle)
- Elortza eskolan: 2 talde (30 ikasle)
- Plentziako eskolan: 2 talde (30 ikasle)
- Lemoizko eskolan: 2 talde (15 ikasle)

Beraz, gehienez, 195 ikasleri eskainiko zaie zerbitzu hau.

Ikastetxeen eta Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren egitekoa izango da izen-emateak kudeatzea, zerrendak osatzea eta enpresa esleipendunari ematea. Horretarako, Uribe Kostako Makomunitatera bidaliko

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed8346d-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

dituzte ikastetxeek egitasmo honetan parte hartuko duten ikasleen zerrenda. Horrez gain, saioak hasita, gorabeheren bat jakinarazi behar izanez gero, enpresa esleipendunak familien harremanetarako kontaktua (telefono zenbakia eta helbide elektronikoa) izango du, familiek haiek helarazita. Uribe Kostako Mankomunitatetik enpresa esleipendunari ikasleen zerrendak bidaliko zaizkie, ikasleen adina, izena eta ikastetxea jarrita. Datuen trataera dela eta, enpresa esleipendunak legez ezarritako eran eta gardentasunez tratatuko ditu datuok. Bestalde, helburu espezializatutarako honetarako erabiliko dira datu pertsonalak, eta ondoren ez dira tratatuko beste helburu batzuekin.

5. METODOLOGIA ETA PROGRAMA

1- Metodologia:

- ✓ Hartzaileen adin tartera egokitzen diren ekintza erakargarriak bilatuko dira, eskolaz kanpo ere, euskara modu gozagarrian ikasteko helburuarekin.
- ✓ Edukiek eta dinamikek genero-berdintasuna errespetatu eta sustatuko dute, eta estereotipo sexistak saihestu egingo dira.
- ✓ Talde lana sustatuko da.
- ✓ Konfiantza giroan eta presiorik gabe, euskara eta euskal mundua ezagutzea izango da helburua.
- ✓ Haurrak hitz egitera animatzea da dinamizatzailearen lana, hau da, euskaraz parte hartzera animatzea.

2- Programazioa:

Euskara indartzeko saioen programazioa diseinatzerako orduan, zerbitzuak dituen berariazko helburuak kontuan hartzea baloratuko da.

Ikasturte osorako programazioaren diseinua enpresa esleipendunaren betebeharra izango da. Hala ere, programazioa garatzerako orduan, enpresa esleipendunaren eta ikastetxe bakoitzean euskara indartzeko saioen arduradunaren arteko elkarlana ezinbestekoa izango da. Hau da, euskara indartzeko saioetan jarraituko den programazioa ikastetxeetan lantzen dutenaren osagarria izango da, alderdi ludiko batetik landuko bada ere.

Programazioan zehaztutako edukiak, beti ere, modu ludiko/didaktiko batean landuko dira: hiztegia lantzeko dinamikak, komunikazioa eta ahozkotasuna

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed8346d-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

lantzeko ariketak, zenbait gai lantzeko jolasak (esamoldeak, zenbakiak, egiturak, aditzak...), euskaraz gozatzeko zenbait ekintza (jolasak, filmak, eskulanak, teknologia berriak...), euskal kultura lantzeko ginkanak, kulturartekotasuna (jolasak, errezetak, argazkiak...), antzerkia, txangotxoak, euskal jaiak, ohiturak, etab.

Era berean, enpresa esleipendunaren betebeharra izango da hiru hilerik behin ikastetxeak, familiek eta ikasleek beteko duten gogobetetze inkesta sortzea.

Saioez gain, ikasturte bukaeran amaiera emateko ekintza bat egingo da ikasleekin. Ekintza zertan izango den enpresa esleipendunak aurkeztuko die ikastetxeei zein Uribe Kostako Mankomunitateari.

6. GIZA BALIABIDEAK

Lehenago esan bezala, talde bakoitza, gehienez, 15 ikaslek osatuko dute. Talde bakoitzaren ardura begirale/dinamizatzaile batek hartuko du eta posible da begirale/dinamizatzaile batek talde bat baino gehiagoren ardura izatea, betiere ordutegi ezberdina badute. Begirale/dinamizatzaileez gain, egitasmo osoa koordinatuko duen arduraduna ere beharrezkoa izango da.

Lan-taldea gizon eta emakumeez osatuta egotea saiatu beharko da, ikasleek emakume eta gizonen arteko identifikazio positiboan oinarritutako harremanak era ditzaten.

Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatu eta programatzerako orduan, bai eta ikasleekiko harremanetan ere.

Zerbitzua hasi aurretik, enpresa esleipendunak egiaztatu beharko du adingabeekin ohiko harremana izango duten langile guztiek Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa dutela, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluaren arabera. Ziurtagiri hori berritu egin beharko da langile berriak ordezkatzen edo lanean hasten badira.

Bestalde, enpresa esleipendunak jarduketa-protokolo bat izan beharko du haurren aurkako tratu txarren arrisku-egoera posibleei edo zantzu posibleei aurre egiteko, eta konpromisoa hartu beharko du langileei prestakuntza emateko adingabeekiko tratuan jardunbide egokiak izan ditzaten.

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed8346d-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Era berean, enpresa esleipendunak jarduketa-protokolo bat izan beharko du, hezkuntza-eremuan genero-diskriminazioko edo indarkeria matxistako egoerak prebenitu, detektatu eta horien aurrean jarduteko.

Lan-taldearen profila honako hau izango da (nahitaezkoa):

1-Koordinatzailea

- Titulazioa: Giza edo Gizarte Zientzietan ikasketak eta Aisialdiko zuzendari titulua.
- C1 euskara-maila egiaztatuta edukitzea, edo, 47/2012 Dekretuari jarraikiz, salbuetsita egotea.
- Eskarmentua: 2 urtekoa aisialdiko zuzendari moduan.
- Sexu-delituengatiko aurrekaririk ez izatea, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiriaren bidez ziurtatua.

Ikasturte oso bakoitzean (zortzi hilabete: urritik maiatzera) aurreikusitako dedikazioa: 52 ordu

2-Begirale/dinamizatzailea (nahitaezkoa):

- Titulazioa: batxilergoa edo baliokidea.
- Aisialdiko begirale titulua.
- Prestakuntza pedagogikoa edo haurrei arreta emateko prestakuntza baloratuko da.
- C1 euskara-maila edukitzea, edo, 47/2012 Dekretuari jarraikiz, salbuetsita egotea.
- Eskarmentua: urte batekoa aisialdiko begirale moduan.
- Sexu-delituengatiko aurrekaririk ez izatea, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiriaren bidez ziurtatua.

2025-2026 ikasturterako (zortzi hilabete: urritik maiatzera) 682 orduko dedikazioa estimatu da.
2026-2027 ikasturterako (zortzi hilabete: urritik maiatzera) 806 orduko dedikazioa estimatu da.

Ordu kopuru horiei klaseak prestatzeko, txostenak egiteko, gurasoen zalantzak argitzeko dedikazioa gehitu behar zaio. Dedikazio hori %30 batean estimatu da. Beraz, hori kontuan izanik, guztira:

2025-2026 ikasturtean: 886,6 ordu guztira
2026-2027 ikasturtean: 1.048 ordu guztira

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed83466-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Guztira, kontratu honen iraupen guztirako begirale/dinamizatzaile lanpostuan aurreikusitako dedikazioa 1.934,6 ordutakoa da (bi ikasturte).

Enpresa esleipendunak saioen kudeaketa osoaren ardura izango du eta langileak kontratatu beharko ditu.

Kontratatutako langileak esleitutako enpresarekin baino ez du izango lan harremana, hau da, ez du Uribe Kostako Mankomunitatearekin juridikoki zerikusirik izango kontratua indarrean dagoen bitartean, ez ostean.

Giza baliabideei dagokienez, enpresa esleipendunak ondoko betebeharrak hartzen ditu:

- ✓ Beharrezko logistika bermatzea langile aldaketa egin behar bada (Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eskatuta, bajen kasuan e.a.)

- ✓ Langilearen egonkortasuna bermatu eskatutako zerbitzua eskaintzeko.

- ✓ Enpresaren esku egongo da langile horren soldata, lan baimenak, oporrak eta juridikoki zerikusia duen edozein gauza.

7. EGINKIZUNAK

Zerbitzua garatuko duten langileen zereginak honako hauek izango dira:

1-Koordinazio-eginkizunak:

- ✓ Koordinatzaileak kudeatu beharko du bere denbora, koordinazio-zereginak aurrera eramateko. Lan hori bere lanpostutik egin ahal izango du eta ikastetxeetara antolaketa eta koordinazio-batzarretan parte hartzeko bakarrik etorri behar izango du.

- ✓ Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak emango dion ikasle-zerrendan oinarrituz taldeak sortzea.

- ✓ Euskara teknikariekin eta ikastetxeetako arduradunekin batzartzea: taldeak eta programazioa sortzeko, ekintzaren jarraipena egiteko, egin beharreko balorazioak egiteko... ikasturtean, gutxienez, 3 aldiz bilduko dira.

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed8346d-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- ✓ Koordinazioa Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin eta ikastetxeekin.

- ✓ Antolaketa, funtzionamendu eta jarraipen-lanak egitea, begirale/dinamizatzaileekin batera.

2-Dinamizazio-eginkizunak (begiraleenak):

- ✓ Ikasleen euskararen komunikazioa eta ulermena hobetzera bideratutako programa gauzatzea, modu ludiko eta didaktiko batez.

- ✓ Ikasturte osorako programazioan zehaztutako eguneroko ekintzak gauzatzea eta ekintza berriak proposatzea beharren arabera.

- ✓ Eguneroko beharren jakinaren gainean egotea (beharrezko materiala, azpiegiturak, etab).

- ✓ Gurasoekin harreman zuzena izatea, bere seme-alaben garapenari buruz izan dezaketen zalantzak argitzeko asmoz.

- ✓ Antolaketa, funtzionamendu eta jarraipen-lanak egitea, koordinazio-zereginak burutuko dituen pertsonarekin batera.

- ✓ Ekintzen eta ikasleen garapenaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, idatziz hiruhileko bakoitza amaitzean.

8. BALIABIDE MATERIALAK

Baliabide materialei dagokienez, ikastetxeek utziko dute ekintza garatzeko beharrezkoak diren oinarrizko hornikuntza eta altzariak.

Gorago aipatu bezala, begirale/dinamizatzaileen zereginetako bat izango da utzitako instalazioak eta materialak egoera egokian mantentzea eta horretarako, beharrezkoak diren neurriak ezartzea. Kalteren bat gertatuz gero, instalazio zein materialetan, ikastetxe bakoitzeko arduradunari horren berri eman beharko zaio ahalik eta lasterren.

Enpresa esleipendunak eman beharko dio begirale/dinamizatzaile bakoitzari beharrezkoa den material didaktikoa. Horrez gain, programazioa garatzeko beharrezkoa den materiala eduki beharko du.

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed8346d-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Edozein material erosi edo sortu behar izatekotan enpresaren kargu izango da honen kostua.

9. MANKOMUNITATEAREKIKO KOORDINAZIOA ETA ZERBITZUAREN EBALUAZIOA

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikaria izango da ikastetxeen eta enpresa esleipendunaren arteko koordinazioaz arduratuko dena. Koordinazio horrek bermatu beharko du finkatutako helburuak betetzea.

Gutxienez hiru koordinazio-batzar egongo dira ikasturtean zehar: hasieran (programazioa zehazteko), ikasturtearen erdian (egon daitezkeen gabeziak eta hutsuneak zuzentzeko, eta ikasleen garapena baloratzeko) eta amaieran (balorazio-batzarra).

Ebaluazioari dagokionez, enpresa esleipendunak honako txostenak aurkeztu beharko dizkiote Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikariari:

- ✓ Hiru hilez behin ebaluazio-txostena. Honetan jasoko dira asistentzia-datuak, emandako saioak, ikastetxe, familien eta umeen gogobetetasun-maila, burututako ekintzen deskripzioa eta begiraleen balorazioa, behatutako hizkuntza-prozesuaren balorazio teknikoa, eta hobekuntza-proposamenak. Hori guztia genero ikuspegia kontuan hartuta egin beharko da.

- ✓ Ikasturte amaierako oroitidazkia, ekainaren 30a baino lehen. Bertan, azken ebaluazio-txostena egingo da: azken asistentzia-datuak, ikasturte osoan emandako saio-kopurua, ikastetxe, familien eta umeen gogobetetasun-mailaren azken balorazioa, ikasturtean zehar burututako ekintzen azken balorazioa, behatutako hizkuntza-prozesuaren azken balorazio teknikoa, begiraleen balorazioa eta hurrengo ikasturteari begirako hobekuntza-proposamenak. Hori guztia genero ikuspegia kontuan hartuta egin beharko da. Horrez gain, hori guztia burutzeko benetan izan diren gastuak banakatuta aurkeztuko dira.

10. DATU PERTSONALEN BABESA

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed8346d-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Entitate adjudikazioduna tratamendu-eragilea izango da kontratua gauzatzean eskuratzen dituen datu pertsonalei dagokienez, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 28. artikuluan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren (DPBEDBLO) 33. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren xede den zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren datuetara mugatuko da datuen tratamendua, eta adjudikaziodunak konpromiso hauek hartuko ditu:

- ✓ Datu pertsonalak ez erabiltzea norberaren helburuetarako edo kontratuan ezarritakoez bestelako helburuetarako.
- ✓ Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen jarraibide dokumentatuen arabera tratatzea datuak.
- ✓ Tratamendurako baimendutako langileen konfidentzialtasuna bermatzea.
- ✓ Arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartzea, DBEOren 32. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bereziki, adingabeei buruzko informazioa bereziki babestu beharko da, baimenik gabeko edozein tratamendu, erabilera desegoki, baimenik gabeko sarbide edo zabalkunde saihestuz.
Zerbitzua hasi aurretik, esleipendunak tratamenduaren enkargu-kontratua sinatu beharko du Mankomunitatearekin. Kontratuaren edukia DBEOren 28.3 artikuluan xedatutakoaren araberakoa izango da.
Behin kontratua amaituta, datu pertsonalak itzuli edo suntsitu egin beharko dira, non eta arauren batek ez duen agintzen datu horiek gordetzea, eta enpresa esleipendunak ezingo ditu gero erabili.
Datu-babesaren arloko betebeharrak ez betetzeak kontratu-zigorrak ezartzea edo, hala badagokio, kontratua suntsiaraztea ekar dezake, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun zibil, administratibo edo penalak.

Mankomunitateak ikuskatu ahal izango ditu zerbitzuari lotutako ekintzak. Horrez gain, egiaztatu ahal izango du enpresa esleipendunak betetzen dituela baldintza-agiri hauetan ezarritako baldintza tekniko guztiak.

Sinatzaile / Firmante: DEIKUN MADARIAGA ARRIETA Data: 2025-07-15 13:03:04(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:03:04 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-15 13:09:27(UTC) Fecha: 15/07/2025 13:09:27 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {9ed83466-df57-46d1-ab09-0f6abd18f4f3} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.